

"la Caixa" bilboko museoaren babeslea da 1999. urtetik

"la Caixa"-ren Gizarte Ekintzak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen hitzarmena berritu du kultura sustatu eta hedatzeko

- Gaur goizean sinatu dute lankidetza hitzarmena bi erakundeok eta bertan izan dira "la Caixa" Fundazioaren zuzendari nagusiaren ondokoa den Elisa Durán andrea; Euskal Herriko eta Kantabriako autonomia erkidegoetarako lurralde zuzendaria, Juan Pedro Badiola jauna eta Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia, Juan Ignacio Vidarte.
- Lankidetza hitzarmen hori hiru urtez izango da indarrean eta horri esker aurretik ezarritako harreman emankorra sendotzea ahalbidetuko da.

Bilbon, 2013ko uztailaren 5ean.- Gaur goizean sinatu dute lankidetza hitzarmena bi erakundeek eta bertan izan dira "la Caixa" Fundazioaren zuzendari nagusiaren ondokoa den Elisa Durán andrea; Euskal Herriko eta Kantabriako autonomia erkidegoetarako lurralde zuzendaria, Juan Pedro Badiola jauna eta Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia, Juan Ignacio Vidarte. Ekitaldi horretan izan dira ere bai "la Caixa"-ren Gizarte Ekintzaren Kultur Arloko zuzendaria, Ignasi Miró jauna, eta "la Caixa"-k Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuan duen ordezkaria, Juan José Muguruza jauna.

"la Caixa"-ren Gizarte Ekintzak estatuko kultur erakunde garrantzitsuenekin harreman sendoak ezartzea du helburu ezagutza sustatu eta hedatzeko. Izan ere, xede horren ildotik, Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioarekin lankidetzan aritu da 1999. urteaz gero; urte horretan sartu baitzen Kide Korporatiboen programan Babesle kategorian.

Lankidetza hitzarmena berrizterakoan aurretik ezarritako harreman emankorra sendotzea ahalbidetuko da. Izan ere "la Caixa" Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuan parte hartuko du, orain arte bezala.

"la Caixa", mundu osoko museo gailenekin

"la Caixa"-ren Gizarte Ekintzaren eta Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren arteko lankidetza hitzarmen hau bi erakundeok duten helburu komuna betetzeko sinatu dute: kultur gaiak ezagutaraztea.

Hitzarmena "la Caixa"-ren Gizarte Ekintzak bultzatu nahi duen jarduteko modu berri baten adibide dugu: mundu osoko museo gailenekin harreman estrategikoak ezarri nahi ditu haren ekintza kulturalak bultzatzeko eta nazioarteko kultur arloko erakunde ezagunenekin sinergiak sortzeko. Besteak beste, "la Caixa"-k honako erakundeekin lankidetzan aritu da: Louvre eta Prado museoekin erakusketak elkarkidetzan antolatu ditu; eta Museu d'Art Contemporani de Barcelona (MACBA) museoak dituen arte garaikideko bildumen kudeaketan parte hartzen du.

Argibide gehiago::

Guggenheim Bilbao Museoaren Komunikazio eta Marketing Arloa

[Tfno: 94 435 90 08 / media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

"la Caixa"-ren Gizarte Ekintzaren Komunikazio Arloa

Juan José Ortiz -94 435 80 84 / 659 233 506 / jjortiz@lacaixa.es

Josué García - 934 046 151 / 638 146 330 / jgarcial@fundacionlacaixa.es

<http://www.lacaixa.es/obrasocial>

Prentsa areto balioanitza

<http://prensa.lacaixa.es/obrasocial/>